

MAITASUN ERROMANTIKOAREN INGURUKO TAILERRA

0. SARRERA (5')

Maitasun erromantikoa egungo gizarteak inposatzen digun **harreman eredia** da, gizon eta emakumeei **rol konkretuak esleitu** eta emakumeak menpeko sujetu bihurtzen dituena. Eraikuntza sozial honek neska* gazteongan eragin handia du, gaztaroan harremanek berebiziko garrantzia baitute gure bizitzetan, eta horregatik oraindik ere garrantzitsuagoa da gai honen inguruan sakontzea.

Teoria eta hitz potoloetaz haratago, maitasun erromantikoak **gure gorputzak goitik behera zeharkatzen ditu** eta gure eguneroko bizimoduan era ezberdinetan eragiten du, beraz, gure esperientzia propioa da gaiari heltzeko abiapunturik egokiena. Tailer honetan, gure bizipenetatik abiatuta, gure harremantzeko moduan identifikatzen ditugun korapiloak arazo pertsonal eta indibidual bezala ulertzetik, **problematika kolektibo bezala ulertzeko jausia** eman nahi dugu, **arazoa politizatu eta feminismitik eredu alternatibo osasuntsu bat eraiki** ahal izateko.



1. ARIKETA (5')

Helburua: maitasun erromantikoaren gaiarekin lehen hurbilketa bat egitea, saioari hasiera emateko.

Dinamikaren azalpena: borobilean jarriko gara denok zutik eta bakoitzak maitasun erromantikoarekin lotzen duen hitz bat pentsatuko du. Zirkuluan gaudela, norbait hasiko da eta bere hitza altuan botako du, esku artean pilota/estutxe bat duelarik. Objektua norbaiti pasatuko dio eta horrek jarraituko du.

Behar den materiala: pilota edo estutxe bat

2. MITOAK DESERAIKI (25')

Helburua: maitasun erromantikoa hainbat mitoren gainean eraikia dago. Ariketa honetan hainbat baieztapen landuko ditugu eta gure artean eztabaidatuz, ikusiko dugu horietako zeintzuk uste dugun bat datozela errealitatearekin eta zeintzuk diren eraikuntza sozialak.

Dinamikaren azalpena: termometroaren ariketa egingo dugu. Gelaren erdigunean ilada bat egingo dugu, bata bestearen atzean jarriz. Iladaren ezkerreko muturra ADOS izango da eta eskumako muturra DESADOS, eta ilada bera, gelaren erdigunea, espazio "neutrotzat" edo "ez dakit" eremutat hartuko dugu. Dinamizatzaileak esaldiak botako ditu altuan, banaka, eta iladatik ezkerredera edo eskumara mugituko gara, baieztapen horren inguruan dugun iritziaren arabera. Saiatuko gara zentroan ez geratzen, gogoratu ez dagoela egia borobilik, ez dago erantzun zuzen ez okerrik! Behin kokatuta, gure arteko eztabaidari ekingo diogu, ideiak elkarbanatuz: zergatik kokatu naiz hemen? Zein iritzi dut esaldiaren inguruan?

Kontuz denborarekin: dinamizatzailleek erabaki beharko duzue 25 minututan zenbat esaldi landu, izan daiteke debateak ez moztea erabakitzea eta esaldi guztiak lantzeko denborarik ez edukitzea, beraz, lehenetsi egokienak iruditzen zaizkizuen eztabaidak.

Behar den materiala: esaldiak

Esaldiak:

- Norbait maitatzen denean, sufritzea normala da
- Gaur egungo gizartean, bikotea izateko presio soziala dago
- Nire bikotea jeloskor jartzen bada, maite nauelako da
- Posible da pertsona bat baino gehiago maitatzea
- Maitasun erromantikoa ezinbestekoa da sistema kapitalista heteropatriarkalaren biziupenerako
- Harreman batean epaitua, kontrolatua edota lotua sentitzen banaiz, ez da harreman osasuntsu bat

3. GURE HARREMAN SAREAK IDENTIFIKATU (25')

Helburua: Gure bizitzaren sostengu diren harremanak identifikatu eta azalaraztea, hauen artean egiten dugun mailakatzea eta bakoitzari eskainitako denbora eta arretaren inguruko hausnarketa egitea.

Dinamikaren azalpena: Paper batean diana bat marraztu eta norberak bere harremanak kokatuko ditu bertan, garrantzitsuenetik (hasierako uztailetan) ez garrantzitsuenera (uztail zabalagoetan). Pertsona edo taldeak kokatu daitezke dianan eta bakoitzarekin partekatzen ditugun gauza garrantzitsuei ere arreta jarriko diegu (nahi izanez gero dianan jasoz). Ondoren hausnarketa egin eta binaka partekatu:

-Nolako diana atara da? Jende asko dago? Zenbat kokatu dituzu hasierako uztailetan? Eta zabaleneretan?

-Zein pertsona/talde daude erdiko nukleotik gertuen? Zergatik? Hauekin partekatzen ditudan gauza garrantzitsuetan nolako elementuak agertzen dira?


-Zentroko harremanetako baten bat jausten bada, zein eragin dauka niregan? Kontziente naiz zein den zentroko harreman horiekiko dudan dependentziaz?

-Nolakoa da batzuei eta beste eskaintzen diezun denbora, arreta eta zaintza? Desoreka handia dago? Orekatua da bakoitzari eskainitakoa eta zuk nahi duzuna?

-Diana bat egokia da gure harreman sarea irudikatzeko? Nolakoa beharko luke izan?

Talde handian hausnartuko dugu: hasierako iritziak, nola ikusten dugu harremanak mailakatzea, zelakoa da familia-bikote-lagunei eskeinitako denboraren banaketa...

Behar den materiala: Orriak eta boligrafoak



4. MAITASUN ERROMANTIKOA BESTELAKO HARREMANETAN, SEXUAFEKTIBO EZ APARTE (15')

Helburua: maitasun erromantikoak harreman sexu-afektiboetaz gain, gure bizitzako gainerako harremanetan duen eragina identifikatzea

Dinamikaren azalpena: dianan identifikaturiko harreman sareei erreparatuz, bakoitzak pentsa dezala zeinetan sentitu dituen:

- Zeloak
- Betirakotasun sentimendua
- Dependentsia

Ondoren, lantaldetan jarriko gara eta hausnartutakoaren inguruan nahi duguna konpartituko dugu.

Amaierako hausnarketara iritsi: maitasun erromantikoa ez dugu soilik harreman afektibo sexualetan erreproduzitzen...

Behar den materiala: Orriak eta boligrafoak

5. HARREMAN EREDU EZBERDINAK, ALTERNATIBAK (15')

Helburua: Harreman aske, osasuntsu eta gozagarriak eraikitze bidean dauden gako batzuk azalatu, eta horien inguruko hausnarketa eta sormen ariketa bat egitea, pertsonala zein taldekoa.

Dinamikaren azalpena: Gelan zehar zerrendan ageri diren kontzeptuak idatzita egonen dira karteletan. Musika lasaia jarriko dugu eta gelatik ibiltzen joanen gara, gure artean gurutzatuz eta kartelak irakurtzen. Kartel txuriak ere egonen dira eta ondoan rotulkiak beste esaldi batzuk idatzi ahal izateko. Bitartean dinamizatzailerak azaltzen du:

- Zer sortzen dit esaldiak irakurtzeak?
- Ze bizipen, ze hausnarketa, erronka datorkit burura?
- Aldatu nahiko nukeen hori, jada aldatu dudana... Ze abiapuntu eta ze utopia?
- bertan paratuko naiz (berdin du beste norbait egotea).
- Esaldia abiapuntutzat harturik banaka edo taldeka hausnartu: ideia honekiko, non-nola nago, non-nola egon nahi dut?

Behar den materiala: Kartelak esaldiekin, kartulinak, errotulkiak, margoak, aldizkari eta egunkari zaharrak...

Esaldiak:

- Subjektu izan nire harremanetan
- Etorbizuneko kezkak, planak... Eta oraina?
- Beldurrak eta hutsuneak nire baitan
- Heteroarauari iskin egitera ausartu
- Konpromisoa eta askatasuna...zer ote?
- Garen moduan, txiki eta handi, idealizatu gabe
- Sakrifizioa eta sufrimendua ez dira maitasuna
- Maitasun sareak zabalduz, elikatuz

- Nire burua maitatzea desobedientzia da!
- Sentitzen dudana mozorrorik gabe eta enpatiaz adierazi
- Maitasunerako denbora gorde
- Gure kidea(k) ondo aukeratu
- Ahaldu harremantzeko, ez azpitik, ez gainetik
- Hitzarmenak, zurekin, bestearekin
- Bestelako ipuin, bestelako erreferenteak sortu
- Itxoiten...zeren, noren zain

